



UDAZKEN KOLOREAK IRUDIETAN BILDUTA

Villabonako I. Argazki Rallyaren irabazlea Omar Benmicoud izan da; argazki guztiak Gurean daude ikusgai >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-11-05**

VIURTEA 1551.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jon Diaz eta Gregorio Eizagirre Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak, herenegun aurkezpenean. I. TERRADILLOS

«MARTXA BERDEA ETA MADRILGO AKORDIOAK SALATUZ», EKITALDIAK

TOLOSA Elkarretaratzea egingo dute Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi elkarteak antolatuta, ekintza horien 33. urteurrena dela-eta 2



A. IMAZ

SILVESTRE ZUBITUR LEITZAKO UPN-REN ZINEGOTZIA

«PPra aldaketa egin dut lehen iturri horretatik etorri nintzelako»

LEITZA UPNtik Alderdi Popularrera egin du aldaketa; hala ere, «berriz elkartzea» nahiko luke 7

Ipupomamua ez dute Asteasun eraikiko
«aurrekontua asko igo delako»

ASTEASU Beste kokaleku baten bila dabilta;
Tolosa da aukera bat 3

Ikerlanak euskaraz idazteko diru laguntzen deialdia

VILLABONA-AIZTONDO
Manuel Larramendi Bazkunak egin du 5



Udazkenaren begiak 2008

Basoan ikusitako onddoak, bildutakoak...
Atera argazkia eta bidali webgunea@hitza.info helbidera, zure izena eta herria zehaztuz.

HITZAn argitaratzeaz gain, argazkiak bidaltzen dituzten guztien artean **asteburu bateko egonaldia zozkatuko da** nekazal etxe batean.

www.hitza.info

Argazkiak bidaltzeko epea: abenduaren 3a.



L **Laburrak****Pello Odrizolaren aldeko elkarretaratzea, bihar**

POLITIKA ● Lizardi Kultur Elkarteak bihar elkarretaratzera deitu du, Plaza Zaharrean, 19:30ean, Pello Odrizola tolosarra aske uztea eskatuz, *Pello gurekin nahi eta behar dugu. Pello Lizardira orain!* lelopean. Hilabetero, estreinako ostegunean, egingo dute elkarretaratzea.

Kolektorearen obrak eta Inauteriei buruzko bilera

KULTURA ● Jai Batzordeak *Inauterik* eta kolektorearen obra izenburupean bilera arako deia luzatu du. Bihar izango da, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Udaleko hainbat politikari eta teknikari izango dira, kolektorearen obraren nondik norakoak azaltzeko eta Inauterietan obregatik zein egoeratan izango den herria eta zein irtenbide aurki daitezkeen eztabaidatzeko.

Ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur

POLITIKA ● Ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur, eta bertaratzeke deia egin nahi die herritarrei. Hau Kultur Etxean izango da, 20:00eta hasita.

T Telefonoak**Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain**

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larrialdi:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozko dispen:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosalde bus:** 943 650621**Leitzarar autob.**: 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leitza):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**lurrmendegi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

Martxa Berdea eta Madrilgo akordioak «salatu, eta ahaztu ez daitezten» hainbat ekitaldi

Elkartasuna » Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi elkarteak antolatutako, ekintza horien 33. urteurrenaren harira.

INIIGO TERRADILLOS

Tolosaldeko Sahararekin Sahara Bizi elkarteak Martxa Berdearen eta Madrilgo akordioaren 33. urteurrenaren harira hainbat ekintza antolatutako, «gertaera haiek ahanzturan eror ez daitezten». Ekintza haiek azaroaren 7an izango dira; lehendabizi elkarretaratzea egingo dute Tolosako Plaza Zaharrean, eta ondoren, *Garrasi bat Saharatik* DVDaren proiektioa izango da ikusgai. Horretaz gain, Madrilgo hileren 15ean egingo den manifestazioa joateko deia ere egin dute, autobusa ere antolatutakoa.

Sahararen aldeko elkarteak kideek herenegun eginiko aurkezpenean azaldukoaren arabera, «janari bilketak egitea eta diru laguntzak ematea ezinbestekoa da sahararrek aurrera egin ahal izateko, baina, zergatik dauden egoera horretan gogoratzea ere beharrezkoa da euren arazoak ulertu eta konpondu nahi izateko». Hala, maiatzaren Fronte Polisarioaren sorreraren harira *Maiatza Borrokan* jardunaldiak antolatutako baituzten, orain, Martxa Berdearen eta Madrilgo akordioaren urteurrena dela eta, gauza bera egin nahi izan dute.

Duela 33 urte gertatutakoak

1975ean Marokok Martxa Berdea nola abiarazi zuen gogoratu zuten aurkezpenean Sahararen aldeko elkarteak kideek. «Marokoko Hassan II.a erregeak bertako biztanleak altxarazi eta Martxa Berdea abiarazi zuen, espainiar administrazioaren zegoen Mendebaldeko Sahararen inbasioa burutzeko. Azaroaren 6an, Sahararen hiriburua den Aaiungo inguruetara iristen da Martxa Berdea. 50.000 lagun martxa militar bat burutzen ariko bailiran espainiar soldaduen parez, pare jartzen dira Mendebaldeko Sahararen marokotarasuna aldarrikatuz. Soldadu espainiarrek Nazio Batuen Erakundeak eskatu moduan, lurraldea defendatu eta Sahararen autodeterminazio eskubidea babestu behar zuten, baina, azkenean, EEBBak eta Frantziaren presiopean Espainiako Gobernuak bere politika aldatzea erabaki zuen eta Mendebaldeko Sahara Rabateko Gobernuari era lotsagarri batean uztea adostu zuen, eta horretarako, Madrilgo akordioak deiturikoak presatutako zituen».



'Maiatza Borrokan' jardunaldien baitan elkarretaratzea egin zuten. I.T.

» EKITALDIK

■ **Azaroak 7, etzi.** Elkarretaratzea, 19:30ean, Tolosako Plaza Zaharrean, *Maroko Saharatik at, autode-terminazioa eta independetzia Mendebaldeko Sahararentzat* lelopean. Ondoren, *Garrasi bat Saharatik* dokumentala, Kultur Etxean.

■ **Azaroak 15, larunbata.** Manifestazioa Madrilgo, 12:00etan. Bertara joateko autobusa antolatutako. 655 43 19 66 zenbakian eman daitezke izena.

Tolosaldeko Sahararekin elkarteak kideek azaltzen duten bezala, «Espainiak, unilateralki eta nazioarteko zuzenbidea saihestuz, ezin du Mendebaldeko Sahararen soberania eta administrazio potentzi estatusa inongo hirugarren herrialderi transferitu, eta gogoratu beharra dago inongo nazioarteko erakundek gaurdaino ez duela onartu Marokoren subironatasuna Mendebaldeko Saharano».

Halaber, salatzen dutenez, «Espainiako Estatuak Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio eskubidea babesteagatik ez zion gerra bati aurre egin beharrik izan, baina saharar herriarekin hitzartuak zituen konpromisoak bizkar eman zien».

Elkarretaratzea eta dokumentala

Gaur egun sahararrek bizi duten egoera «egun horietan gertatutako ondorior» direla salatu nahi izan dute, eta hori gogorarazteko antolatutako ekitaldiak. Batetik elkarretaratzera deitu dute *Maroko Saharatik at, autodeterminazioa eta independetzia Mendebaldeko Sahararentzat* lelopean, etzi, Tolosako Plaza Zaharrean, 19:30ean; ondoren, 20:00etan Mundubat Gobernuak Kanpoko Erakundearen DVD proiektioa izango da Tolosako Kultur Etxean. *Garrasi bat Saharatik* dokumentala izango da ikusgai. «Marokoko erregimenaren okupazio bortitzaren eta nazioarteko axolagabetasunaren ar-

tean harrapatuta», sahararrak nola borrokatzen diren «bere lurraldea eta subirotasuna berreskuratzeko» kontatzen du. Gatazka ahaztuak Saharako zibiletan eragindako ondorio kaltegarriak ikertzen ditu, eta askatasunerako bidean emakumeek daukaten funtsezko papera isladatzen du.

Madrilen manifestazioa

Bestalde, hileren 15ean, larunbata, Madrilgo manifestazioa egingo dute Sahararen aldeko elkarteak deituta, eta bertara joateko deia ere egin dute eskualdeko Sahararen aldeko elkarteak. Hain zuzen ere, autobusa jarri dute bertaratzeke, eta joan nahi duenak 655 43 19 66 elkarteke zenbakira deitu besterik ez du egin behar. Urteregiten dute manifestazio hau 12:00etan izango da, eta «Mendebaldeko Sahararen independetzia eta askatasuna aldarrikatzea» izango du helburu.

Sahararen aldeko ekimen gehiago

Tolosaldeko Sahararekin elkarteak kideek herenegun eginiko aurkezpenean azaroaren egingo diren beste ekintza batzuen berri ere eman zuten. Batetik, Ibarra Sahara eta Ekuador ardatz hartuta jardunaldiak izango dira hileren 10ean hasita. Saharari dagokionez, Fatma Mohamed Salem Euskal Autonomia erkideko Fronte Polisarioaren ordezkariak hitzaldia emango du; antzerkiak izango dira, henna tailerrak, ikus-entzunezkoak, eta erakusketak bi sahararren —bata Gasteizen bizi dena, eta bestea lurralde okupatueta— koadroekin; Ibarra jardunaldien baitan, futbol txapelketa ere egingo dute Sahara, Ukraina, Ekuador eta Ibarra taldeen artean.

Horretaz gain, hileren amaieran saharar errefuxiatuen kanpalekua bidaia egingo dutela ere azaldu zuten, eta laster *Piztu itxaropena* lelopean urteregiten den janari bilketa hasiko dutela ere gogoratu zuten.

G **Gutunak****Pello Lizardira orain!**

Pello Odrizola Agirre Lizardi Kultur Elkarteak bazkidea dugu aspalidani. Euskara eta euskal kulturari estu lotu zitzaion gaztetatik gure bazkide Pello, Euskal Herria aske izateko duen eskubidearen aldeko borrokarri heldu zion bezalaxe, ez baitu gure herriak aske izateko ez biderik ezta eskubiderik ere. Hemen, gure herriaren hegoaldean, Espainiako konstituzioak argi eta garbi honakoa adierazten du:

«Art. 1.2. La soberania nacional reside en el pueblo español, del que emanan los poderes del Estado»; «Art. 2. La Constitucion se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nacion Española, patria comun e indivisible de todos los españoles»; «Art. 3. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerlo y el derecho a usarlo»; «Art. 8. Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejercito de Tierra, la Armada y el Ejercito del Aire, tienen como mision garantizar la soberania e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional».

Espainiak o berehala guztiek adierazi dute behin eta berriz: «konstituzio horretatik kanpo ez dago ezer», nahiz eta nazioarteko itunek behin eta berriz honakoa diotene: «Herri guztiak dute autodeterminatzeko eskubidea. Beronetaz baliaturik, inolako morrontzarik gabe hautatzen dute beren legegatasun politikoa; eta askatasun osoan zedarrizten beren garapena, ekonomia, gizartearen eta kulturaren alorretan». Alde ederra dago Espainiako konstituziotik nazioarteko legegira. Europar demokrazia aldarrikatzen da, herri guztiaren eskubideak ontzat jotzen dira, Espainian, aldir, herri txikiak kartzela eta morrontza aldarrikatzen da.

Euskal Herria bizirik, duin eta aske izateko eskubidearen alde egindako borroka kartzelara eramane zuten Pello eta 20 urte pasa dituen hainbat espetxetan. Orain Lugon daukate. Bere zigorra 2008ko uztailearen 2an betetzen zuten; duela 3 hilabete pasatxo aske behar zuten, Tolosa, Lizardin. Legedia bihurritu dute zigor osoa betetea duen gure bazkidea bertan mantentzeko, zigorra bidegabeki luzatzeko. Legedia menduko zital bihurtu dute, egoera politikoa esanetara dago egun Espainiako justizia. Joxi eta Joxean bahitu, torturatu, hil eta gogorpuak karezez estali zituztenak kondenaen %5 beteta kalean daude. No comment! Eta hori gogoratzen dituztenei buruz ere, no comment!

Bidegabekeria handi honi ez esaten dio Lizardi eta bihar, osteguna, elkarretaratzea egingo dugu, 19:30ean, Plaza Zaharrean. Pellogurekin nahi eta behar dugu. Pello Lizardira orain.

Inaki Azaldegi (Lizardiko kidea).
Tolosa.



Ipupomamuaren irudi birtuala. HITZA

Asteasutik kanpo bilatuko diote etxea Ipupomamuari Jaurlaritzak eta Aldundiak

Asteasu » Eraikineren aurrekontuak gora egin du, orubeak dituen arazoengatik, eta Udalak ezin die aurre egin gastuei.

JUAN LUIS ZABALA (BERRIA)

Gorringo antzerki taldeko eta Típula ekoiztetxeko kideek Asteasu zuten buruan haur eta gazte literatura inguruko gune baten proiektua planteatu eta aurkeztu zuten. Asteasun izena munduan zabaldu duen idazleak, Bernardo Atxagak, jarri zion izena egitasmoari: Ipupomamua, bere baitan ipuina, poema, marrazkia eta mamua batzen dituen hitza. Azkenean, ordea, Asteasutik kanpo ari dira Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia Ipupomamuarentzat etxea egiteko lekua bilatzen, etxe hori Asteasun eraikitzea aurrez uste zena baino askoz garestiagoa izango litzatekeela argudiatuta.

Asteasuko Lamiategi baserriaren belazea zen Ipupomamuaren eraikina egiteko hautatutako orubea. Baina Eusko Jaurlaritzako Ur Agentziak egindako azterketek

agerian utzi dute orube horretan hainbat lan egin beharra dagoela eraikitzen hasi baino lehen, Usarrabi errekek eragin ditzakeen uholde arriskuei aurre egiteko. Horretaz gain, bideragarritasun azterketa batek erakutsi du Ipupomamuak urtero eragingo litzakeen galerak aurrez uste zena baino askoz handiagoak izango liratekeela.

Erakundeak proiektuarekin lanean hasi zirenean, eraikineren aurrekontua 1,8 milioi eurokoa izango zelakalkulatzen zen, eta urteroko galerak 36.000 euro ingurukoak. Asteasuko Udalak, Gipuzkoako Aldundiak eta Jaurlaritzak akordioa sinatu zuten, erakunde bakoitzak herena jarriko zuela adostuta. Baina eraikuntzaren aurrekontuak asko handitu dira, 3 milioi eurora iritsi arte. Batetik, uholde arriskuek eragindako lanengatik, eta bestetik arkitekto taldeak eraikinak espazio handiagoa beharko zuela erabaki zuelako, Newcastleko (Ingalaterra) gune bat ikusten izan eta gero. Gainera, Aldundiak egindako bideragarritasun azterketak erakutsi du urteroko galerak 400.000 eurokoak izango liratekeela, nahiz eta Ipu-

pomamuak 50.000 bisitari jaso.

«Asteasuko Udalarrentzat kopuru horiek oso altuak dira», adierazi du Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak. «Hori ikusita, guk Ipupomamuaren kudeaketarako fundazio bat sortzea planteatu genuen, barruan Udala, Aldundia eta Jaurlaritza hartuko zituena, batetik, eta bestetik enpresa pribatu batzuk. Jaurlaritzak erantzun zigun ez zela fundazioan sartuko, eta dirulaguntzak emango zituela; eta Aldundiak garbi adierazi zion ezeko fundazioari. Beraz, gurea izango zen fundazioan erakunde bakarra, justu txikiena, eta ikusi genuen zama horrekin ezin genuela aurrera egin».

Lehen ilusioa zena, orain pena

«Ilusio handia genuen, eta pena handia dugu orain», dio Amenabarrek. «Baina ezin dugu Asteasun etorkizuna baldintzatu datozen urteetan proiektu bat modu horretan egin delako. Eraikitzeak eskatzen duen inbertsioa handia da, baina are kezka handiagoa eragiten zigen urteroko defizitak: 400.000 euro urtero, eta hori bai-

no gehiago 50.000 bisitari baino gutxiago izanez gero...».

Asteasuko Udalak proposatutako fundazioa sortzeari ezezkoa eman arren, Jaurlaritzak eta Aldundiak ez dute proiektua baztertu. «Fundaziotik harantzago edo honuntzago, muga handiak daude proiektua Asteasun gauzatzeko, orubearekin sortu diren gorabeheren ondorioz, eta azkenean Asteasuko Udalari ezinezkoa zaio proiektuari aurre egitea», azaldu du Koldo Ordozgoiti Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko komunikazio arduradunak. «Baina bai Jaurlaritzak eta bai Aldundiak proiektu hori oso garrantzitsutzat jotzen dute, eta aurrera segitzen dute lanean proiektuarekin. Ipupomamua Asteasuko etxerik gabe geratu da, baina proiektu gisa lehen bezain bizirik dago. Asteasun ezin bada, beste leku batean gauzatu beharko da».

«Sinesten dugu proiektuan, eta lanean ari gara», berretsi du Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara diputatuak. «Proiektuak ez du balioa galdu. Orain, esku artean ditugun irtenbideak gauzatzeko dagozkigu».

«Ipuinaren, poesiarren eta sortuntzaren inguruko gunea eta proiektua garatzearen alde gauden», dio Ordozgoitik. «Proiektu oso garrantzitsutzat jotzen zen hasieran, jotzen da orain, eta joko du gero ere, ikuspuntu askotatik. Are gehiago: estrategikoan izan daitekeela uste dugu. Gure azpiegituraren planen artean zegoen orain arte eta halaxe jarraituko du».

IPIUIN, POEMA, MARRAZKI ETA MAMUEN ETXEA

Haur eta gazte literatura ardatz duela, poesia, ipuinak, kondairak eta marrazkiak bizi eta gozatzeko lekua izango da Ipupomamua. Eskoletako ikasleak eta irakasleak hartuko ditu astegunetan, eta familiak asteburuetan. «Etor daitezela eskolak programa baten arabera, eta etor daitezela larunbata hipermerkatu batean pasatu nahi ez duten familiak», esan zuen Bernardo Atxagak 2005ean, erakundeek Ipupomamua finantzatzeko sinatutako hitzarmena aurkezteko egin zen agerraldian.

Proiektu berritzailea

Proiektu berritzailetzat du Jaurlaritzako Kultura Sailak Ipupomamua, «bai sorkuntza aldetik eta bai literaturarekin, ipuinekin eta kondairekin zerikusia duen altxor inmaterial hori gizarteratzeko moduaren aldetik ere». Horretaz

«Ezin dugu Asteasun etorkizuna baldintzatu proiektu bat modu horretan egin delako»

IÑAKI AMENABAR
Asteasuko alkatea

«Proiektuak ez du bere balioa galdu. Sinesten dugu proiektuan, eta lanean ari gara»

MARIA JESUS ARANBURU
Aldundiko Kultura diputatua

«Oso proiektu garrantzitsutzat jotzen dugu. Estrategikoa izan daitekeela uste dugu»

KOLDO ORDOZGOITI
Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

gain, garrantzi handia ematen dio proiektuak euskararekin duen loturari ere.

Eraikuntza arazorik ez balitz, leku egokia litzateke Asteasu Ipupomamuarentzat, Ordozgoitiaren ustez. «Atxagaren jaioterria izateaz gain, oso inguru egokia du hone-lako proiektu batentzat».

Tolosa eta Ataun aipatu dira aukeren artean. Baina Ipupomamuak etxea non izango duen erabaki gabe dago oraindik, Aranburuk dioenez. «Aukera ugari ditugu mahai gainean», adierazi du.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Voith-Gorostidi eremuko lehenengo fasean. 2 logela, 2 komun, terraza zabal, sukaldea, sala, garajea eta trasteroa. 300.000 euro (BEZ-a barne). Negroziatzeako prest. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 657 70 05 68.



Javier Quiros izan zen hirugarrena; argazki hau aurkeztu zuen Merkataritza gaian. HITZA



Xebe Iglesias izan zen lehen billabonatarra; argazki hau aurkeztu zuen Bi kolore gaian. HITZA



Omar Benmicoud izan da irabazlea eta bere bilduman argazki hau aurkeztu zuen Udazkena Amasan gaian. HITZA



Asier Moreno, bigarrena; argazki hau aurkeztu zuen Bi iturri gaian. HITZA



Carlos Mediavillak Bi kolore gaiaren accessita lortu zuen argazki honekin. HITZA



Ainhoa Esnaolak Merkataritza gaiaren accessita lortu zuen argazki honekin. HITZA

Udazken koloreak argazkitan

Villabona » Omar Benmicoud ordiziarra izan da Villabonako I. Argazki Rallyaren irabazlea.

ERREDAKZIOA

Villabonako I. Argazki Rallyaren irabazlea Omar Benmicoud ordiziarra izan da. Berak aurkeztu zuen argazki bilduma izan zen saritua. Bigarren saria Asier Moreno lazkaotarrak lortu zuen eta Javier Quiros izan da hirugarrena. 150 euro, 120 euro eta 90 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren. Lehen billabonatarra Xebe Iglesias izan da eta berarentzat 70 euroko saria izango da.

Argazki rallyak lau gai zituen, hau da, parte-hartzaileek lau gai horiei buruz argazkiak ateratu behar zituzten. Merkataritza, Udazkena Amasa, Bi iturri eta Bi kolore ziren


hautatuko gaiak. Gai bakoitzari buruz accessitak eman dira eta saridun bakoitzak 50 euro jasoko ditu. Hala, Merkataritzan Ainhoa Esnaola billabonatarrak jaso zuen saria; Udazkena Amasan Andoni Barandiaran lazkaotarrak; Jose Luis Perez beasaindarra izan zen irabazlea Bi iturri gaian eta Carlos Mediavilla Bi kolore gaian

Erakusketa Gurean

Argazki Rallyko erakusketa ikusgai dago ostiralera arte (egun hori barne) Gurea aretoko erakusgelan, 17:00etatik 20:00etara. Sari banaketa larunbatean izango da, 12:30ean erakusgelan bertan.



Jose Luis Perezek Bi Iturri gaiaren accessita lortu zuen argazki honekin. HITZA



Andoni Barandiaranek lortu zuen argazki honekin Udazkena Amasan gaiaren accessita. HITZA

Ikerlanak euskaraz idazteko diru laguntza deialdia egin du Larramendi Bazkunak

Villabona-Aitzondo » Beste helburua «gure herrietako mikrohistoria osatzea» da, dio Bazkuneko lehendakariak.

IMANOL GARCIA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak ikerlanak euskaraz idazteko diru laguntza deialdi berria egin du. Jon Unanue Bazkuneko lehendakariak azaldu duenez, «ikerlanak euskaraz egin daitezten sustatzeko deialdia da. Zoritzarrez, 1992an deialdia egiten hasiginean bezain egoera txarra edo okerragoa da euskaraz egiten diren ikerlan kopuruei dagokionez».

Ikerlanak euskaraz egiteaz gain, beste helburu nagusia «gure herrietako mikrohistoria osatzen laguntzea da», azaldu du Unanuek.

Hain justu, deialdira proiektuak aurkezteko gai batzuk aukeran jarzen dituzte. *Fraisoro: utzitako haurren tragedia*, *Ezkondutako aurreko harremanak*, *Bekatuaren grina*, *Zeferino Ansa: alkate moderno baten itzala*, eta *Amasa-Villabona: Izenak duenak izana?* dira gai horiek. Hori bai, proiektuaren aurkezleak aukeratu dezake beste gai bat.

Epea: azaroaren 28a

Beste helburu bat ere badu deialdiak, hots, ikerlari gazteei diru laguntzak ematea ikerlan txikiak lantzeko. Deialdira proiektuak aurkezteko epea azaroaren 28an amaitzen da eta Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren helbidera bidali behar da ikerlan deialdirako dela zehaztuta: Bulandegi bidea, 23-behea, Karidade-enea. 20150 Zizurkil.

Proiektua hiru orrialdetan zehaztu behar da eta bertan ikerlanaren helburua, zein iturri erabiliko diren, landa lanik egin behar duen eta beharrezko ikusten diren beste zehaztapenak jarri behar dira.

Epaimahaia bi diru laguntza onartuko ditu, biak, gehienez ere, 2.500 eurokoak, baina diru laguntza bi horien azken kopurua ez da erabakiko ikerketa lana eskuratu eta aztertu bitartean. Hala ere, epaimahaia 5.000 euroko diru laguntza eman diezaike ikerlan bakoiti.

Saiakeraren luzera gutxienez 100 orrikoa izango da, orri bakoitzeko 2.100 karaktere inguru izanik. Noski, lanak euskaraz landu eta idatzi behar dira eta ezingo da itzulpenik aurkeztu. Epaimahaia gutxienezko idazkera mailakotzat irizten ez dituen lanak atzera botako ditu.



Bonba mehatxua epaitegian

TOLOSA » SOS Deiakeek jasotako dei batek, Tolosako epaitegian bonba bat jarri dutela jakinarazi zuen atzo. Ertzaintzak hesiz inguratu zuen epaitegi ingurua baina ez zuen ezer susmagaririk topatu eta 16:30ak inguruan segurtasunerako jarri zuten zinta kendu zuten. R. CALVO

'18/98 auzikoei' zigorra murriztea eskatu du Gorenako fiskalak

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalako epaiari helegitea jarri ondoren, 18/98 auzia Auzitegi Gorenan dago aztergai egun. Bertako fiskalak akusatuen zigorra gutxitzeko eskaria egin du, handiegia delakoa. Hala, eskualdekoei dagokionez, Mikel Egibarri espetxe zigo-

rra 13 urtekin 11 urtera, Joxe Mari Olarrari 13 urtekin 11 urtera eta Nekane Txapartegi 11 urtekin 9 urtera jaisteko eskaria egin du.

Mikel Egibar zizurkildarra eta Joxe Mari Olarra billabonatarra preso daude egun. Nekane Txapartegi asteasuarra atxilotu gabe dago.

La Salvadorako etxebizitzetarako behin behineko zerrendak ikusgai

Villabona » Udaletxean eta iragarki taulan ikus daitezke zerrendak; erreklamazioak hilaren 19ra arte egin daitezke.

ERREDAKZIOA

La Salvadorako eremuko babeseko etxebizitzetarako behin behineko zerrendak ikusgai daude udaletxean eta iragarki taulan. Bertan onartuen eta baztertuen zerrendak ikusgai daude. Onartuak 240 lagun inguru dira eta hilaren 19ra arte, 14:00ak arte zehazki, dago epea erreklamazioak egiteko. Guztira 49 etxebizitza zozketatu dituzte.

La Salvadorako eremuko babeseko etxebizitzak egun Loatzo musi-



La Salvadorako eremuko babeseko etxebizitzak, Kale Nagusitik ikusita. i.g.

ka eskola dagoen eraikinaren ondokoak dira eta Kale Nagusira begiratzen dute. Eraikiko diren etxebizitzetatik zazpi 3 gela eta 2 bainugela izango dituzte; berrogeik, 2 gela eta bainugela bat; eta bik, gela

bat eta bainugela bat. Azken bi hauek 40 metro koadro ingurukoak dira eta gainontzekoak, 57 eta 81 m² artekoak. 49 etxebizitza horietatik bi ezinduak diren pertsonen esleitzeko prestatuak daude.

Doako ikastaroak Internet erabiltzeko

ERREDAKZIOA

Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolak Interneten erabiltzen ikasteko doako ikastaroak antolatuko ditu *Internet zuretzat ere!* ekimenaren baitan. Internetek eskaintzen dituen aukerak eta abantailak baliatzea da helburua. Ekimen hau Eusko Jaurlaritzak sustatua da, KZgunea, Eudel, Euskaltel fundazioa eta EITBk babesten dutelarik.

Abenduan bi orduko (17:00etatik 19:00etara) bi jardunaldi antolatuko dituzte 25-55 urte bitarteko

adinekoentzat eta 55 urtekin gora koentzat. Parte-hartzaileek aukeratu izango dute internetez informazioa bilatzeko, webguneetako edukia deskargatu eta argitaratzeko, posta elektronikoz komunikatzeko edota norbere intereseko webguneak identifikatzeko.

Izen-ematea telefonoz egin daiteke, 943 69 23 21 zenbakira deituz edo idazkaritzara hurbilduz. Hilare 12an amaituko da epea eta plazen adjudikazioa izen-emate ordeenaren arabera egingo da.



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan, OSKI arropa dendan eta HITZAko Tolosa eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



'Soinujolearen semea', zinemara eramatekotan

Asteasu » Bernardo Atxaga idazleak honen gidoia egin dauka esan du, «baina finantziak falta da».

ERREDAKZIOA

Soinujolearen semea (Pamiela, 2003) zinemara eramateko bidean da. Atxagak esan duenez, «gidoia egin dauka, baina finantziak falta da, ezin dut gehiago esan». Udan zehar beste idazle batek eta biak idatzi dute gidoia, baina ez du zehaztu filma euskaraz edo gaztelaz izango den.

Atxagak hainbat sari irabazi ditu *Soinujolearen semea* liburuarekin. Joan den maiatzean, Italian Mondello saria jaso zuen. Kasu horre-

tan atzerriko egile batek idatzitako liburu onenaren saria izan zen, *Il libro di mio fratello* liburuagatik (Atxagaren liburuaren itzulpena). Urtarrilean Italian beste sari bat ere jaso zuen: Grinzane Cavour, atzerriko narratibaren arloan, hain zuzen.

Kasu hau ez litzateke Atxagaren liburuarekin egindako lehen filma, izan ere, *Obabakoak* liburuaren oinarritutakoa den *Obaba* da adibideetako bat.

Hurrengo liburua udaberrian

Hurrengo liburua *Zazpi etxe Frantziar* izango da eta 2009ko udaberriaren argitaratuko duela esan du. Euskaraz ez ezik, gaztelaz, galizieraz eta katalanez ere aterako du. Euskaraz «lehenxeago», «sinboloa dela eta».

Laburrak

Barriolak gaur aukeratuko ditu larunbateko pilotak

PILOTA » Barriolak eta Martinez Irujak gaur pilota aukeraketa eginen dute Atano III.a pilotalekuan. Larunbatean jokatuko dute Lau T Erdiko Txapelketako partida aurrez aurre. Bestalde, Bigarren Mailako finalaurreko dagokienez, honela daude finkatuta: Apezetxea eta Olaetxea lizartzarra gaur ariko dira Zaldibarren. Uriarte eta Bellos, berriz, Matienan.

Oinen zaintzari buruzko hitzaldia Alkartasunan

ANOETA » Gaur, Anoetako Alkartasuna Biltokian oinen zaintzari buruzko hitzaldia izango da. Begoña Tabernerok emango du hitzaldia eta 18:00etan hasiko da. Solasaldiari buruzko informazioan zehazten denez, «ongizate beteak lortzeko oinekin pentsa dezagun». Bestalde, Alkartasun dagoeneko ari dira Milagrosa egunean, hilaren 27an, Zuloaga Txiki jatetxean egingo den bazkarirako izenak hartzen. Horreterako biltokian bertan eman behar da izena.

Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketa abian

ZIZURKIL » Teodoro Hernandorena VII. Ipuin Lehiaketa martxan da dagoeneko: Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Iruja, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek har dezakete parte. Oinarriak kalean dira dagoeneko eta udal bulegoan eskura daitezke: lan bakoitzeko hiru kopia Zizurkilgo Udal bulegora eraman behar dira, hilaren 17ko 14:00ak baino lehen.

Barrikotera joateko izen-ematea gaur itxiko da

IRURA » Iruarako kilometroak jaialdian aritu ziren guztiei eskerrak eman nahian, barrikotera antolatu dute Ikastolak eta Udalak, larunbatean 14:00etan hasita. Barrikotearen antolatzaileek adierazi bezala, norberak janaria eraman behar du eta edaria eta kafea Udalak eta Ikastolak jarriko ditu. Bada, pilotalekuko barrikotera joateko izena emateko azken eguna gaur da, 943 69 43 74 telefono zenbakira deituta. Lanean aritu diren guztiak daude gonbidatuta.

Kultur Elejirari hasiera emateko igande goizean ibilaldia antolatu dute

Baliarrain » Babarrun eta gaztain-jaterako 65 lagun elkartuko dira eta ondoren antzerkia ikusteko aukera izango dute Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Kultur Elejira antolatu dute Baliarrainen; igandean hasi eta hilaren 21era arte iraungo du, asteen behin gutxienez zer bait izanik. Baliarraingo Udalak aurtun Kultur Elejira ibilaldi batekin ireki nahi izan du; horretarako joateko asmoa duena plazara joan beharko da 10:00etarako.

Ondoren, babarrun eta gaztain-jatea antolatu dute Arkaitz elkarteak, eta honetan 65 bat lagun elkartuko dira. Frontoian giroa jartzea ez zaie kostako... Ondoren, antzerkia ere izango da, jada ezaguna den *Ogiyk karri etzun semia*, alegia.

Hilaren 15erako umeentzako talo tailerra prestatu dute, hau da; taloak egiten ikasiko dute haur eta gaztetxoak. Hauek dastatzeko aukera izango da honen ondoren.

Hilaren 21ean, ostiralarekin, hitzaldi interesgarri bat prestatu dute: herri kirolei loturikoa. Haien beharrak eta gabeziak landuko dituzte eta kirolariak ere izango dira.



Igandeko gaztain eta babarrun-jatea arrakastatsua izaten da. NEREA LIZARTZA



Taloak egiteko tailerra antolatu dute hilaren 15erako. Haur eta gaztetxoentzako izango da, eta ondoren dastatzeko aukera izango da. HITZA

» EGITARAU, EGUNEZ EGUN

Azaroak 9, igandea

- 10:00. Ibilaldia prestatu dute. Joateko asmoa duena plazan azaldu beharko da.
- 14:00. Arkaitz elkarteak antolatutako babarrun eta gaztain-jatea.
- 17:00. Txirene antzerki taldearen eskutik *Ogiyk karri etzun semia* antzezlanak Kultur Etxean.

Azaroak 14, ostirala

- 21:00. Josune Lazkanoren eskutik solasaldia *Lehen sorospenen oinarriak*. Kultur Etxean izango da.

Azaroak 15, larunbata

- 17:00. Haur eta gaztetxoentzako tailerra: *Taloak nola egin* eta ondoren, merienda eurek egindako taloekin.

Azaroak 16, jubilatuen eguna

- 11:30. Hamaiketako.
- 12:30. Meza nagusia.
- 13:15. Oinarriko Gizarte Zerbitzuak herritarren eskura hitzaldia Udaleko gizarte langilea den Larraitz Agirrearen eskutik (herritar guztientzako).
- 14:15. Jubilatuen bazkaria.

-Oharra: Bazkarira etorri behar duenak hilaren 12a baino lehen Udaletxera deitu beharko du: 943 88 90 03.

Azaroak 21, ostirala

■ 20:00. Mahai ingurua Kultur gelan: *Herri kirolen eta herri kirolarien beharrak eta gabeziak*. Aimar Irigoien, Aitor Esnaola, Arkaitz Arteaga segalaria... Moderatzailea: Koldo Alduntzin. -Ondoren norberak ekarritako janariarekin afaria eta trikitilariak. Udalak, sagardoa eta ardoa.

Eskertza



URTZ SARRA ELIZONDO
-goian bego-

Mila esker gure saminean gurekin bat egin zenuten guztioi.

Helbidea: Txamiurtza etxea
(Aristizabal sagardotegia)

Isturriotz auzoa (Oiarzun)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

SILVESTRE ZUBITUR Leitzako zinegotzia

Leitza » Ez dira betiko garai onenak; Silvestre Zubitur, UPNren zinegotzia, «askan» gustura zegoen baina «iturria» itzuli da, PPrak; hala ere, iturriak berriz elkartzeko nahi du.

ASIER IMAZ

Iragan astean ez zuen ezer esan nahi. Larumbatean jaso omen zuen telefono deia. Ondoren, hautsak harrotu ditu Nafarroan Silvestre Zubiturren (Leitza, 1956) erabakiak. UPN utzi eta PPrak, «iturria», itzuli da Leitzako zinegotzia. Bestalde, Jose Miguel Goikoetxeak, Leitzako UPNren bigarren hautesia, alderdian jarraitzeko asmoa agertu du.

Jose Miguel Goikoetxea ez da zurekin joango Nafarroako Alderdi Popularerara.

Jose Miguel Goikoetxeak ez du deusen konpromisorik lehenaz gain, baina nik bai. Nik banuen konpromisoa. Niri pena handia eman dit eta gauza hauek ez dira hain errazak izaten. «Aizu, zu hemengo zinen eta etorri nahi al duzu?» esan didate, eta horrela izan da.

Zalantzarik ez al duzu edukit?

Nire ustez azken urte t'erdian gauzak ez zihozten ongi eta ez nengoen konforme. Nolabait, zerbaitek hautsi behar zuen eta azkenean horrela gertatu da. Askok esaten dute: «Kontseilu politikoan, %95ak, aurrekontuetan abstenitu egin behar zela esan zuen», baina horiek ez dute esaten kontseilu politikoan %99,9ak, elkarrekin segitu behar zela esaten genuela. Hori ez du inork esaten.

Nola da posible aurrekontuen inguruan abstentzioa defendatzea %95ak, eta ondoren %99ak batera jarraitu behar zela esatea, PPKoak, Madrildik, bi gaiak lotuta zeudela esaten ari zirenean?

Konforme. Baina nik esaten dudana, 17 aurrekontu izan dira 17 urtetan, eta sekulan ez da inongo arazorik izandu.

PPren joan delako UPN beti.

Eta horrela joan behar duelako. PPK UPNri Nafarroan zer egin behar duen ez dio sekula santan deusez agindu. UPNk, Madrilen PPK zer egin behar duen ezin du agindu. Zuk zure etxean eta nik nirean; eta biak lagunak.

Baina kasu honetan UPNk %95-arekin erabaki du aurrekontuetan abstentzioa?

Bai, baina egoera hori ez da erreala. 17 urtetan sekulan eztabaidatu ez den gauza bat, orain eztabaidatzea pentsatu dute. Zergatik ez da eztabaidatu? Adostasun bat zegoelako. Beti esan dena; UPNk Nafarroan agintzen du eta PPK Madrilen.

Zuk salatzen duzuna beraz, aurrekontuen inguruko eztabaida



A. IMAZ

«Lehen iturri horretatik etorri nintzelako egin dut PPrako aldaketa»

bera eman izana da. Eztabaida hutsa seinale txarra izan dela.

Horixe da. Ez dakit 17 urte hauetan inoiz ere eztabaidatu ez den aurrekontuetan zer egin. Baina aurten ez dakit zergatik... elkar ezin emana edo... ez dakit; ez dut behatza begian sartu nahi.

Aurrekontuekin hasi al da zatiketa-aren istorioa?

Ez dut uste. Gu gizarajook goiko gauzez sekula ez gara ohartuko. Gure aldetik, borondate onarekin gauzak egin nahi ditugu; sinesten batzuen alde eta gauza batzuk defendatuz.

Bat baino gehiago harrituta utzi dituzu.

Horixe utzi ditudala harrituta bat baino gehiago, nire lagunak ere bai.

Leitzara begira, zinegotzi karguan jarraituko al duzu?

Horrela uste dut.

UPNtik karguak uzteko eskatzen ari zaizkizue.

Niri inork ez dit deus eskatu.

Eta eskatuko balizute?

Nire zinegotzi kargua ez nuke utziko. Orain, niri bozkatu didate, denak etorriko balira esanez: «Zuk gaizki egin duzu, gu UPNkoak gara eta UPNren izenean eman dizkizugu botoak; alde egin behar duzu». Hori esaten etorri gero, orduan... orduan noski. Ni herritarrengatik nago. Herritarrei laguntzeagatik sartu naiz eta herritarrei lagundu diet 17 urte hauetan, beti.

Eta ze ikuspegiko pertsonak diren sekula begiratu gabe. Arazoekin etorri zaidanean norbait, beti saiatu naiz laguntzen, arazoan sinestuz baldin banuen noski.

Goikoetxea eta zure arteko harremana nola gelditzen da orain?

Sekula guztian bezala. Ez zait iruditzen, benetan, deus aldatu behar denik.

Baina orain bi alderdi politiko ezberdinekoak zarete.

Bale. Baina nik pentsamendu berdina ditut herenegundik hona eta Goikoetxeak ere bai. Niri gustatuko litzaidake kontu honekin inork mokoka ez aritzea, ez batzuk eta ez besteak. Atzo arte adiskide ikaragarriak zirenak, gaur banandu direnean... senar-emazteak banantzen direnean elkar akabatu nahi hori, hori ez zait batere gustatzen.

UPNren barruan urak harrotuta datoz. Batzuk joan egin zarete eta Yolanda Barcina, Iruñeko alkateta, alderdiko zuzendaritzara aurkeztuko omen da. Irabazit gero, zerbait aldatuko al luke?

Niri baietz iruditzen zait. Bera beti jarrera horretan mintzatu da, %99,9a bezalaxe. Zer giro zegoen kontseilu politikoan? Batera jarraitzekoa, 17 urte hauetan bezala.

Orduan arazoa Nafarroako Gobernuko presidentea da: Miguel Sanz.

Ez... ez baitakit. Buru batek ondorio edo erabaki asko hartu behar ditu. Behin erabakiak hartzen direnean gogor eutsi behar izaten zaie, aurre egin.

Argi eta garbi, berriz elkartzearan aldekoa zara.

Nik horrela nahi dut eta egin ahalak egingo ditut horrela izan dadin. Orain, PP lanean hasten denean giro txarra edo niri gusten ez zaidan giroa ikusten baldin badut,

emango dut tokallazoa mahaiaren gainean eta han utziko ditut denak.

Alderdi berriaren goiko postuetan kokatu zaituzte. Gestoran omen zaude.

Atzo Joxe Miguelek, Xalbadorrek, esan zidan. Zerbait aditu omen zuen irratan. Niri ez didate komunikatu. Hark esan zidan: «Hi hola eta hola esan diate, gestoran hogoela eta...». Hauxe esan nion: «Niri ez ekarri paseoa Madrilerara, denbora zeukeat nik berrikerako eta».

Baina Iruñerako omen da eta orduan bai.

Ardura gehiago izango al dituzu PPN?

Nik lanarekin ezin dut ordea. Ez naizela ni bakarra: lau seme eta beste lau mutil lanen ari direla etxean, eta erreginak ere lanean jarri nahiko nituzke. Ba al dakizu ze saltsak dauzkaten?

Lehen bezala jarraitu nahiko zenuke beraz.

Nik horrela nahi dut. Eta denak elkar segitzea nahi dut. Eta Partidua- ren Egunean, hil honen azkenean, denak han egotea. Nik esaten diet: denak hara, andrea ere bai.

Zu joango al zara?

Ez. Nik ezin dut joan, belarriak ere aterako dizkirate.

Baina andrea bidaliko duzu?

Nik denak joatea nahi dut. Afiliatu guztiak hartu eta hara joatea. Andrea, osabak...

Orduan zertarako hartu duzu PPrak joateko erabakia?

Hartu beharra nuelako. Atzo zient- bat telefono dei jaso nituen, ez zidaten bizitzen utzi, Iruñeko UPNko jendeak eta Erriberakoek; «oso ongi egin dudala, haiek ez di- rela pasatuko, baina errespetatzen dutela...». Izango da bakarren bat «Kontxo, honek ere...». Baina per- tsonak bere buruarekin duintasun pixka bat behar du.

Baina berriz elkartzeko asmoz al datu zara.

Ez. Aldaketa egin dut lehen iturri horretako nintzelako. Iturritik etorri eta aska batean geunden, aska horretatik esan digute iturria bueltatu beharko litzatekeela eta ea zer iruditzen zaigun, eta ni itur- rira bueltatu naiz. Hori bakarrik. Ni askan ikaragarri kontentui nengoen. Nire desadostasunak, nire aldatetako defendituko nituen kontseilu eta kongresuetan, kon- forme ez nengoen gauzak aldatzen saiatuko nintzen...

Berriz askara itzuli nahi duzu.

Bai.

Ideologiak eta koherentziak, PPrak pasatzea egokiagoa zela esan dizu beraz.

Egokiagoa ez, nire iturria itzuli behar nuen eta puntu. Egokiagoa ez. Horretan pentsatzen hasten baldin bazara; niretzat egokiagoa zer izango litzatekeen, egia esaten dizut, niretzat egokiagoa etxean gelditzea izango litzateke. Zeren 17 urtetan zehar *koponario* ikusten da; nazkagarrikeria asko ikusten dira, mutur txar asko eta nazka ematen duten gauza asko. Eta ni bezalako desgraziatu gizarajo baten- zat, 17 urtetan muxu truke ideia batzuk defendatzeagatik... tristea da..., tristea da. Nire ideiak UPNk defendatu ditu gehien. PPK oraindaino horrela defendatu ditu, orain, hasten baldin bazaizkit nire ideietatik kanpora ateratzen...

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 034. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Amezketeta.** Joxe Mari Otermi-nen hitzaldia Amezketako historiari buruz 20:30ean balioanitzeko gelan, Kultur Hamabostaldian.

Erakusketa

■ **Villabona.** Gurea Zineman 17:00etatik 20:00etara Argazki Rallyko erakusketa antolatuta dute.

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Jubilatuen eguna izango da 16an: meza Arantzazuko Amaren elizan, bazkaria Izaskun jatetxean eta dantzaldia. Autobusa 13:45ean Pasusetik. Izen-emaitea, 26 eurotan Elizpen, eta Asteasu-koek Iturriondo tabernan.

■ **Alegia.** Txintxarri Eguna azaroaren 16an: 11:15ean Abesbatzak taldeko hildakoen aldeko Meza Nagusia abestuko du, 12:00etan Txintxarri-Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua elizan eta 14:30ean bazkaria Txintxarri jatetxean. Txartelak salgai 35 eurotan Landa okindegia, Kafe Letamendia eta Jubilatuen taberna.

■ **Alegia.** Azaroaren 23an Bigarren Eskuko Azoka, Joseba Llamas apaiz alegiarrak lan egiten duen Ipar Potosin nekazal eskolaren alde. Arropak, liburuak, diskak edota jostailuak ari dira jasotzen.

■ **Tolosa.** Azaroaren 8an izango da Engomadora Modernako langile ohien bazkaria izango da Fronton jatetxean. Informazioa eta erreserbak 943 117010 eta 943 674669 telefono zenbakietan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mendizaleak argazkilari lanetan

Villabona » Aizkardi mendi elkarteak I. Argazki Rallya antolatu du hilaren 16an, igandea, «mendia eta natura uztartuz».

ERREDAKZIOA

Aizkardi mendizale elkarteak «mendiko ibilbide erraz batean zehar» egingo den argazki rally-a antolatu du heldu den hilaren 16rako, igandera. Helburua «argazki eta mendizaletasuna bateratzea» izango da eta parte-hartzaileek aurrez markatutako ibilbidea burutu beharko dute. Natura zein mendiarekin erlazionaturik egongo den gai zehatz bati buruz argazkiak atera beharko dituzte partaideek, baina antolatzaileek egunean bertan emango dute gaiaren berri.

Izen-emaitea doakoa da eta egunean bertan izango da elkartearen lokalean. Argazki rallya 09:00etan hasiko da, eta parte-hartzaile bakoitzak ibilbideari antolakuntzak zehazturiko argazki bat egin ostean ekingo dio. 9 kilometro inguruko ibilbidea markatuko dute, eta guztira lau ordu dituzte mendizaleek hau amaitzeko.

Ibilbidean zehar, formatu analogiko zin digitala erabiltzen duten argazkilariak antolakuntzak aurrez emandako gaiaren inguruko 36 argazki atera beharko dituzte. Digitala aukeratzeko dutenek, berriaz, euren argazkiak numerazio jarraia dutela aurkeztu beharko dituzte, ez baitute baimenduko bat bera ere ezabatzea.

Sari interesgarriak

Sari interesgarriak jarri dituzte aukeran irabazleentzat. Hala, argazki onenari saria argazki kamera bat



Aizkardi martxoan mendi ibilaldia antolatu zuen. N.LATABURU

irabaziko du. Begaren saikatuak 100 euro eramango ditu eta hirugarren saikatuak, berriz, 75 euro. Ikusleek ere bozkatzeko aukera izango dute eta hauek aukeratzeko argazkiaren egileak 75 euro eramango ditu.

Sari banaketa hilaren 28an, ostiralarekin, egingo dute 21:00etan Gurea aretoan, Aizkardiaren 25. Mendi Astearen baitan. Saritu gabeko lanak sari banaketa egunean jaso ahal izango dute egileek. Saritutako lanak, aldiz, antolakuntzaren esku geratuko dira.

Informazio gehiago webgunean

Lanen aurkezpenaren, euskarriren bilketaren eta euskarri fotografikoen inguruko informazio gehiago www.aizkardi.com helbidean lor daiteke.

A Agurrak



Urte askoan!

Aitor Erbiti (Leitza). Gaur 3 urte. Muxu potolo bat zure guraso, aitona, amona, Rakel eta Josuren partetik.



Urte askoan!

Maria Mujika (Sarasola sagardotegia). Familiaren eta Migelen partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

txokoa **h**

2 sarrera pare

zozketan,
deitu eta eskuratul!

ALURR
dantza taldeak
eskeinita
SUA ikuskizuna

Azaroak 16, igandea • 19:30ean
Tolosako Leidorren

HITZAren harpidedunentzat abantailak



2 sarrera pare

zozketan,
deitu eta eskuratul!

Kroke
taldearen
kontzertua

Azaroak 8, larunbata • 20:30ean
Tolosako Leidorren



Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**